

# BALDI NTZAK

**STAND OSOA** eskatu ahal izango dute hurrengo irizpideak betetzen dituzten enpresak (argitaletxeak, diskoetxeak, ekoizpen enpresak, banatzaileak), elkarteak eta erakundeak edo argitalpen ahalmena duen beste edozein:

## 01 LIBURUA



### Zabalkunde lanak

- Euskaraz edo elebidun \*
- Euskal gaia (edozein hizkuntzatan)



### Literatur lanak

- Euskaraz edo elebidun \*
- Jatorrizkoa euskarazkoa denean
- Edozein hizkuntzatan egilea euskalduna bada eta Euskal Herrian girotuta badago.

## 03 MULTIMEDIA



- Euskaraz edo elebidun\*
- Ahozkotasunik edo testurik ez dutenean, euskal sortzaileen lanak onartuko dira.

## 04 OTROS

**PAPERGINTZA:** agendak, egutegiak, postalak eta pegatinak. Euskaraz edo elebidun\*, eta testurik ez badute, Euskal Herriko ikonografiadunak.

**MAHAI-JOKOAK:** Euskaraz edo elebidun\*

**PANPINAK:** Euskal kulturako pertsonaien errepresentazio direnak.


**PRODUKTU SORTAK:** Elementu nagusia euskarazko liburu, disko eta multimedia izan behar dute.

## 02 DISKOA



- Kantuen heren bat euskarazkoak diren lanak
- Lan melodikoetan, euskal musikariaren sorkuntza lanak eta/edo interpretazioak onartuko dira.

Gerediaga Elkarteak aurkeztutako produktuen egokitasunari buruz ebatzi ahal izango du edozein unetan eta azokan parte hartzera gonbidatzeko eskubidea izango du.



**STAND ERDIA:** Eskatzaileak stand oso bat konpartitu beharko du beste batekin eta horren berri eman. Biek aurreko atalean jasotako irizpideak bete beharko dituzte.

**AUTO-EKOIZLEAK:** Autokudeatutako eta partekatutako stand berezia izango da. Lekua alokatu ahal izango dute autoekoiztutako bi produktu baino gutxiago duten sortzaileek.

\* elebiduna, hizkuntzetako bat euskara bada

# ESKARIA RIA

[www.durangokoazoka.eus](http://www.durangokoazoka.eus)

## 01 ESKARIA



### Modua

- Webgunean erregistratu eta galdetegia bete.

### Epea

- Irailean zehar. Epez kanpoko eskariek %15eko gainkarga izango dute prezioan.

### Ordainketa

- Eskaria egiterakoan. Prezioa urtero zehaztuko da.

## 02 EBAZPENA



- Urrian zehar, Gerediaga Elkartek eskariaren gaineko ebazpena jakitera emango dio partaideari: onarpena, stand kopurua eta kokalekua.

## 03 ESKEINITAKO ZERBITZUAK



- Aparkalekua (Cutxienez leku bat eskari bakoitzeko, ez stand bakoitzeko)
- Garbiketa, WIFI, argindarra...
- Zaintza (20:30etik 10:00etara, azoka hasi eta amaitu aurreko egunetan ere bai)

Autoekoizleek baldintza bereziak izango dituzte.

## 04 ESKUBIDEAK

- Egileen sinadurak: webgunean eta bozgorailuetatik iragartzea.
- Nobedadeen erakusketa azoka barruan
- Online katalogoa: nobedadeak eta argitalpenen fondoa
- Aurkezpenak guneetan aurrez eskaria eginda.
- Webgunean euskaraz iragarkia.
- Azokako bozgorailuetatik euskarazko edo melodikoa den kantua entzungai.



# BETE BEHARRAK

## SALGAIAK

- Argitalpenen katalogoa jakinaraztea. Salmentan izango diren produktu-sortak adieraztea.
- Nobedadeen zerrenda bidaltzea
- Erakusketan jartzeko urteko argitalpenen bi ale bidaltzea

## DISENUA ETA PROMOZIOA

- Urriak 30 baino lehen erakusmahaien diseinu propioak jakinaraztea, onartuak izateko.
- Salmenten promoziorako egingo diren ekintzen berri 48 ordu lehenago jakinaraztea, onartuak izateko.
- Ikus-entzunezko produktuetarako, norbanako soinu bitartekoak erabiltzea.
- Gerediagako bazkideei (akreditatuak) %10eko deskontua egitea.

## SEGURTASUNA ETA GARBITASUNA

- Egileen sinaduretan jendetza aurreikusi ezker, izena-ematearekin jakinarazitea.
- Norbere erakusmahaia eta alboak garbi eta ordenatuta izatea.

# DEBEKUAK

- Erakusmahaia beste bati uztea.
- Parte hartzeko irizpideak betetzen ez dituzten produktuak saldu eta erakustea.
- Bisitarien joan-etorria eta alboko erakusmahaiak eragozte.
- Zirkulazio pasalekuak oztopatzea
- Azoka zabalik dagoen bitartean erakusmahaia itxita izatea

BISITARIARENTZAKO ORDUTEGIA  
10:30 - 20:00

(Erakusketariarentzat sarrera 30 min. lehenago, 3 modulutik eta akreditazioarekin)

KARGA ETA DESKARGA

Egunero, 9:30-10:30, ezkerreko alboko ateetatik

MUNTAIA

Bezperan, 9:00 - 20:00 (kontsultatu aurretik)

DESMUNTAIA

Hurrengo eguneko goizeko 9:00ak arte

APARKALEKUKO ORDUTEGIA

7:00 -22:00

Akreditazioak eta harremanetarako puntua, informazio stand-a.



INFORMAZIO ETA ZEHAZTASUN GEHIAGO..

Araudi osoa

[www.durangokoazoka.eus](http://www.durangokoazoka.eus)